

## AKADEMIAREN ALBISTEAK

Albiste hauek 2007. urteko bigarren eta hirugarren hiruhilekoei buruzkoak dira. Izan ere, aurreko aldizkariak, aldizkari arrunta izan eta 12. zenbakiarekin kaleratu zenak, martxoko data du. Ekainekoa, berriz, aldizkari berezia izan da, eta 4. zenbakia jarri zaio; aldizkari berezi horrek gai bakarra jorratu du, hain zuzen ere, Zuzenbide Zibileko Atalak ekainaren 29an antolatutako jardunaldia, eta, beraz, ez du Akademiaren albisteei buruzko atalik izan.

Aipatu seihileko horretan, zuzendaritza-batzak bilerak egin ditu maiatzaren 22an, uztailaren 24an eta irailaren 27an. Egiatan, batzako zenbait kidek euren aldetik ere beste bilera batzuk egin dituzte, eguneroko arazoei aurre egin ahal izateko.

Zuzenbidearen Euskal Akademiak burutu duen kultura-jardueraz denaz bezainbatean, hainbat ekitaldi antolatu dira; antolatzaileria, gehienetan, Zuzenbide Pribatuko Atala izan da. Arian ere, Eusko Legebiltzarrak agindua helarazi zigun Euskal Autonomia Erkidegoaren Foru-Zuzenbide Zibilari buruzko Legearen Aurreproiektua prestatzeko; proiektu horrek indarreko legeria eguneratu eta egokitu behar du gaur eguneko errealitatea aintzakotzat hartuta.

Eginkizun hori betetzeko, Zuzenbide Pribatuko Atalak zenbait bilera egin zituen Akademiaren egoitzan, eta, bilerotan, bazkideek egindako ekarpenak aztertu ziren. Bilera horiei guztiei buru emateko, Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkuneko Ekitaldi

Aretoan, ekainaren 20an, “Hacia la primera Ley Civil vasca – Euskal Lege Zibil berria” izeneko jardunaldia egin zen.

Jardunaldi hori oso arrakastatsua izan zen, jende ugari bildu zelako bertara, hizlari, komunikaziogile eta bertaratutakoen partaidetza anitza izan zelako, eta guztiek ere goi mailako lanbide-prestakuntza erakutsi zutelako.

Jardunaldi horrek ahalbidetu zuen Zuzenbidearen Euskal Akademiak, Gasteizen, ekainaren 26an, Eusko Legebiltzarrean, eta, zehatzago, Euskal Zuzenbide Zibila Eraldatzeko Batzordean aurkeztea aurretiaz berarengandik jasotako aginduaren emaitza.

Aipatu jardunaldiaren edukia, bai eta Eusko Legebiltzarreko Batzordeari euskal zuzenbide zibila eraldatzeko aurkeztutako aurre-proiektua bera ere, aldizkari berezian daude jasota. Aldizkari horrek IV. zenbakia eta 2007. urteko ekaineko data du.

“Akademiaren albistek” izeneko atal honetan, nahitaez aipatu behar da zuzendaritza-batzako bi kide hil egin zaizkigula. Kideok, beste guztiek bezala, laguntza erabakigarria eskaini digute Akademiaren ibilbidea ona izan dadin. Hildakoen izenak: Eduardo Escribano Villán jauna, ekainaren 17an hil zena, eta Xabier Aurrekoetxea Aurrekoetxea jauna, irailaren 14an zendu zena. Goian beude, euren ontasun eta lan nekaezinarengatik.

Udazkenerako, hainbat kultura-jarduera daude prestatuta, dela ekitaldi moduan, dela argitalpen moduan.

**Xabier Oleaga**